DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
Comisión de Servicios a las Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 22. AKTA

**<u>Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea</u>**

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2025-05-19

**Ordua:** 10:25

**Tokia:** Loretope aretoa

**<u>Batzordeburua</u>:** Iñaki Gabarain Gaztelumendi

**<u>Etorritakoak</u>:**

**<u>Batzordeko kide diren zinegotziak</u>:**

Jon Insausti Maisterrena

Maria Jesus Idoeta Madariaga

Martin Ibabe Eceiza

Kerman Orbegozo Uribe *(10:26an bilkuratik atera da, 10:30ean sartu, 10:53an berriro atera eta 10:58an bilkurara itzuli da)*

Sandra Barrenetxea Diez

Markel Ormazabal Gaztañaga *(10:43an bilkuratik atera da, 10:45ean sartu, 11:21ean berriro atera eta 11:36an bilkurara itzuli da)*

Izar Hernando Ibero

Iñigo Garcia Villanueva *(10:26an bilkurara bertaratu da eta 11:08an atera da)*

Vanesa Velez de Pablos

Arantza Gonzalez Garcia

**<u>Beste zinegotzi batzuk:</u>**

Itziar Iturri Arrazola (11:21ean bertaratu da bilkurara)

Ane Oyarbide Ochoa (10:36an bilkuratik atera da)

## ACTA N.º 22

**<u>Comisión de Servicios a las Personas</u>**

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 19-05-2025

**Hora:** 10:25

**Lugar:** Sala Loretope

**<u>Preside:</u>** Iñaki Gabarain Gaztelumendi

**<u>Asistentes</u>:**

**<u>Concejales/as miembros de la Comisión</u>:**

Jon Insausti Maisterrena

María Jesús Idoeta Madariaga

Martín Ibabe Eceiza

Kerman Orbegozo Uribe *(se retira de la sesión a las 10:26 h, se reincorpora a las 10:30 h, vuelve a retirarse a las 10:53 h y se reincorpora a las 10:58 h)*

Sandra Barrenetxea Díez

Markel Ormazabal Gaztañaga *(se retira de la sesión a las 10:43 h, se reincorpora a las 10:45 h, vuelve a retirarse a las 11:21 h y se reincorpora a las 11:36 h)*

Izar Hernando Ibero

Iñigo García Villanueva *(se incorpora a la sesión a las 10:26 h y la abandona a las 11:08 h)*

Vanesa Vélez de Pablos

Arantza González García

**<u>Otros/as concejales/as:</u>**

Itziar Iturri Arrazola (se incorpora a la sesión a las 11:21 h)

Ane Oyarbide Ochoa (abandona la sesión a las 10:36 h)

12447n II

**Idazkaria:** Itxaso Valero Izagirre, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

**Secretaria:** Itxaso Valero Izagirre, por delegación de la Secretaria General.

**1.- 2025eko apirilaren 10ean izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 10 de abril de 2025.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 21. akta, 2025eko apirilaren 10ean egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 21, correspondiente a la sesión celebrada el día 10 de abril de 2025.

*(10:26an Kerman Orbegozo jauna bilkuratik atera da eta Iñigo Garcia jauna sartu da)*

*(A las 10:26 h se retira de la sesión el Sr. Orbegozo Uribe y se incorpora el Sr. García Villanueva)*

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, Batzordeburuak gaien ordena aldatzea erabaki du eta ondoren 3. gaia aztertu da.

* * * *

Con la conformidad de todos/as los/as presentes, el Presidente decide alterar el orden de tratamiento de los asuntos y a continuación se pasa a tratar el asunto n.º 3.

* * * *

**3.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, 2025eko udari begira jaietan eta gaueko aisialdirako espazioetan gertatzen diren eraso sexisten aurkako prebentzio eta arreta zerbitzu eta ekintzei buruzkoa.**

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre los servicios y acciones de prevención y atención contra las agresiones sexistas en fiestas y en espacios de ocio nocturno de cara al verano de 2025.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"EH BILDU udal-taldeko zinegotzi Sandra Barrenetxea Diezek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, 2025eko udako jaietan eta gaueko aisialdi-guneetan eraso sexistak prebenitzeko eta artatzeko zerbitzuei eta ekintzei buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Ane Oyarbide ordezkariari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean ahoz erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Laster hasiko da udako jaien kanpaina, Donostian bi multzo handitan antolatzen dena: alde batetik, hiriari lotutako ospakizunak, hala nola Aste Nagusia, Euskal Jaiak eta Jazzaldia; eta, bestetik, auzo bakoitzean antolatzen diren jaiak. Jaietako eta aisialdiko guneetan, publikoetan zein pribatuetan, indarkeria matxistak dimentsio espezifikoa hartzen du, eta, normalean, nahasi egiten dira aisialdirako eta ondo pasatzeko eskubidea eta sexu-eraso diren jokabideen inguruko mugarik eza. Horrek eragotzi egiten du emakumeek eta gizonek espazioaren erabileraz berdintasunez gozatu ahal izatea, eta, ondorioz, administrazio publikoak indarkeria mota hori prebenitzeko eta artatzeko mekanismoak ezarri

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Sandra Barrenetxea Díez, concejala del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Delegada Ane Oyarbide para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre los servicios y acciones de prevención y atención contra las agresiones sexistas en fiestas y en espacios de ocio nocturno de cara al verano de 2025.

JUSTIFICACIÓN

Próximamente comenzará la campaña de fiestas de verano, que en Donostia se organiza en dos grandes niveles, por una parte, las celebraciones ligadas a la ciudad en su conjunto, como Semana Grande, Euskal Jaiak, Jazzaldia, etc y por otra, las fiestas que se organizan en cada uno de sus barrios. Los espacios festivos y de ocio, tanto públicos como privados, son espacios donde la violencia machista adquiere una dimensión específica y donde habitualmente se confunde el derecho al ocio y disfrute con la ausencia de límites en torno a conductas que suponen una agresión sexual. Este hecho impide que mujeres y hombres puedan disfrutar en

beharra izaten du.

igualdad del uso del espacio y genera en la Administración pública la obligatoriedad de establecer mecanismos para la prevención y atención de este tipo de violencia.

Hala dio 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 58.2 artikuluak, esaten baitu EAEko administrazio publikoek bermatu behar dutela lehentasunezko arreta, integrala, doakoa, irisgarria eta kalitatezkoa jasotzeko eskubidea, gaikuntza espezifikoa eta beren beharretara egokitua duten profesionalek emana.

Así lo señala el artículo 58.2. del DL 1/2023, donde dice que las Administraciones Públicas Vascas deben asegurar el derecho a una atención prioritaria, integral, gratuita, accesible y de calidad, prestada por profesionales con capacitación específica y adaptada a sus necesidades.

Arazoaren dimentsio kuantitatiboari dagokionez, zoritxarrez, ez dugu Udaltzaingoak artatu dituen sexu-erasoei buruzko daturik, argitaratutako azken memoria 2017koa baita, baina, Ertzaintzak erregistratzen dituen 85 delituak erreferentziatzat hartzen baditugu, lehen mailako arazotzat har dezakegu. Uste dugu halakotzat daukala udal honek eta egungo udal-gobernuak, eta, horregatik, sexu-erasoen biktimentzako arreta hobetzea aurreikusi du bere programan, besteak beste, berehalako arreta hobetuz eta gaueko aisialdiko establezimenduekin protokoloa aktibatuz.

Respecto a la dimensión cuantitativa del problema, por desgracia, no contamos con datos respecto a las agresiones sexuales que ha atendido la Guardia Municipal, puesto que la última memoria publicada es del año 2017, pero si tomamos como referencia los 85 delitos que registra la Ertzaintza, podemos considerar que se trata de un problema de primer orden. Entendemos que así lo considera este Ayuntamiento y su actual gobierno y que por esa razón, en su programa prevé una mejora en la atención a las víctimas de agresiones sexuales, entre otras cuestiones, a través de una mejora en la atención inmediata y de la activación del protocolo con los establecimientos de ocio nocturno.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da urtero abian jarri direla *Gune morea* izeneko informazio- eta arreta-guneak. Herritarrek eskatzen dituzten espazioak dira, eta oso garrantzitsuak, batez ere emakume gazteentzat eta prebentziorako eta hurbileko eta premiazko lehen harrera egiteko.

En ese sentido, es destacable la puesta en marcha todos los años de los puntos de información y atención llamados “Gune Morea”. Son espacios que la ciudadanía reclama y que resultan de especial importancia sobre todo para las mujeres jóvenes y para la prevención y primera acogida cercana y urgente.

Garrantzitsua izan arren, puntu horiek hiri mailan antolatzen diren jaietan eta hiru auzotako jaietan baino ez dira aktibatzen: Zipotz jaiak, Porrontxo jaiak eta Karmengo jaiak. Zerbitzu horren estaldura zenbakitan adierazita, esan dezakegu Donostian bizi diren ia 100.000 emakumeetatik 69.787k ez dutela zerbitzu hori baliatzeko aukerarik beren auzoetako jaietan, hau da, Donostiako emakumeen %70ek ezin izango dute zerbitzu hori erabili gertuen dituzten jaietan. Hiri osorako diren jaietan, ordea, badago zerbitzu hori, eta baloratzen dugu ahalegina, baina kezka sortzen digu une batzuk bai eta beste batzuk ez lehenesteko erabiltzen ari diren irizpideari dagokionez.

A pesar de su importancia, estos puntos solo se activan en las fiestas que se organizan a nivel de ciudad y en fiestas de 3 barrios: Zipotz jaiak, Porrontxo jaiak y Karmengo jaiak. Traduciendo a números la cobertura de este servicio, podemos afirmar que de las casi 100.000 mujeres que viven en Donostia, 69.787 no tienen acceso a este servicio en fiestas de sus barrios, es decir, un 70% de las mujeres de Donostia no podrán utilizarlo en sus fiestas más cercanas. Las fiestas que se celebran para toda la ciudad, sin embargo, sí cuentan con este tipo de servicio, esfuerzo que valoramos en su medida, pero que también nos genera preocupación al respecto de qué criterio se está utilizando para priorizar estos momentos y no otros.

Ibaeta, Martutene, Intxaurrondo eta antzeko auzoetan protokolo espezifikoak dituzte, jai-batzordeen edo mugimendu feministako erakundeen ekimenez. Baina horietan guztietan adierazi dute kezkatuta daudela, ez daudelako lan horretarako prestatuta eta prestakuntza eta profesionaltasun handia behar delako. Eraso matxista baten biktimari

En barrios como Ibaeta, Martutene, Intxaurrondo, … cuentan con protocolos específicos, por iniciativa de las propias comisiones de fiestas o de las organizaciones del movimiento feminista. Pero en todos ellos muestran su preocupación por tener que atender una labor para la que no están preparadas, que exige una amplia

ematen zaion lehen harreraren kalitatea funtsezkoa da ondorengo erreparazio-prozesuan, eta, arretaren oinarrizko irizpideak ezagutzen ez badira, nahi gabe, zabarkeriak gerta daitezke. Horregatik, lan hori behar bezala homologatutako profesionalek egin behar dute, bai langile publiko gisa duten esperientziagatik, bai horrelako zerbitzuei ezarri behar zaizkien kontratazio-baldintzak betetzeagatik.

formación y grandes dosis de profesionalidad. La calidad de la primera acogida a una víctima de una agresión machista es clave en su posterior proceso de reparación, además de las posibles negligencias en las que, sin querer, se puede incurrir si se desconocen los criterios básicos de atención. Es por ello, que esta es una labor de profesionales homologadas debidamente, bien por su experiencia como trabajadoras públicas bien por el cumplimiento de las condiciones de contratación que deben imponerse a este tipo de servicios.

Bestalde, gaueko aisialdiko establezimenduetarako protokolo bat aktibatzeari dagokionez, ez dakigu lan horiek egin diren, baina ezetz uste dugu, ez baita ezer argitaratu horri buruz. Hori beharrezkoa da, emakumeek jakin dezaten gaueko aisialdiko espazioetan badela protokolo espezifiko bat sexu-erasoak prebenitzeko eta artatzeko.

Por otra parte, respecto a la activación de un protocolo para los establecimientos de ocio nocturno, desconocemos si se han realizado estos trabajos, pero entendemos que no, puesto que en todo caso, no se ha publicado nada al respecto, cuestión necesaria si queremos que las mujeres sepan que los espacios en los que desarrollan su ocio nocturno son espacios dotados de un protocolo específico para prevenir y atender las agresiones sexuales.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatu duen zinegotziak aurkeztutako INTERPELAZIOA:

Por todo ello, la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

1.- Ikusi da arazo espezifiko bat dagoela jaietako sexu-erasoekin, eta ikusi da horiek antolatzen dituzten eragileek erakunde-baliabideak eskatzen dituztela erasoei aurre egiteko. Udal-gobernuak zergatik ez du zabaltzen *Gune morea* zerbitzuaren eskaintza, Donostiako emakumeen gehiengoak beren auzoetako jaietan zerbitzu hori erabili ahal izango dutela ziurtatzeko? Zein dira jai batzuk aintzat hartzeko eta beste batzuk ez hartzeko irizpideak?

1.- Visto que existe una problemática específica respecto a las agresiones sexuales en fiestas y visto que los agentes implicados en la organización de estas reclaman medios institucionales para hacerles frente, ¿Por qué razones el Gobierno Municipal no amplía la oferta del servicio de “Gune Morea” para asegurar que la mayoría de las mujeres de Donostia pueden acceder al mismo en las fiestas de sus barrios? ¿Cuáles son los criterios para considerar unas fiestas sí y otras no?

2.- Gizarte-erakundeak eurak ari direnez lan horri aurre egiten, nola koordinatuko dira arretarako eta segurtasunerako udal-zerbitzuak lehen harrera modu autoantolatuan egiteaz arduratzen diren auzoetako talde eta erakundeekin?

2.- Visto que son los propios organismos sociales quienes están afrontando esta labor, ¿Cómo se van a coordinar los servicios municipales de atención y seguridad con los diferentes grupos y organismos que en los barrios, se encargan, de forma auto organizada, de realizar la primera acogida?

3.- Gaueko aisialdiko gune pribatuetan protokoloa oraindik abian jarri ez denez, udal-gobernuak zergatik ez du abian jarri protokolo hori? Noiz egiteko asmoa duzu?

3.- Visto que aún no se ha puesto en marcha el Protocolo en espacios privados de ocio nocturno, ¿Por qué razones el Gobierno Municipal no ha puesto en marcha este protocolo? ¿Cuándo tiene previsto hacerlo?

Donostia, 2025eko maiatzaren 9a

Sandra Barrenetxea Díez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Donostia, a 9 de mayo de 2025

Sandra Barrenetxea Díez
Concejala del Grupo Municipal EH BILDU”.

Ane Oyarbide eta Sandra Barrenetxea andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Oyarbide Ochoa y Barrenetxea Díez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada

al Diario de Sesiones.

*(10:30ean Kerman Orbegozo jauna bilkurara sartu da berriro)*
*(10:36an Ane Oyarbide andrea bilkuratik erretiratu da)*

* * * *

Jarraian, deialdian aurreikusitako gaiak aztertzeko hurrenkerari ekin diote berriro.

* * * *

**2.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, udan haurrentzako udaleku irekien zerbitzuak zabaltzeari buruzkoa.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

“EH BILDU Udal Taldeko zinegotzi Sandra Barrenetxea Díezek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta haurrentzako udaleku irekien zerbitzua handitzearen gaineko INTERPELAZIO hau egin nahi dio Ane Oyarbide zinegotzi ordezkariari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean ahoz erantzuteko.

JUSTIFIKAZIOA

Eustaten arabera, 2023an nabarmen igo zen lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko zailtasun handiak dituztela esaten duten EAEko landunen ehunekoa. Lana duten pertsonen %29k dio zailtasun handiak dituela lana eta seme-alabak zaintzea uztartzeko. Eta batez ere emakumeek dituzte zailtasun handiagoak, egunean gizonak baino batez beste 1,1 ordu gehiago aritzen baitira adingabeak zaintzen.

Uda da eskola-umeak zaintzea eta laneko ordutegia uztartzeko zailtasun gehien sortzen dituen urte-garaia, eskolarik gabe izaten baitira haurrak garai horretan. Ohikoa da emakumeek beren lanaldia murriztea hilabete horietan zaintza horri aurre egiteko: emakumeek egiten dituzte lanaldia murrizteko 6 eskaeratik 5, eta haurrak zaintzeko eszedentzia eskaeren %80. Eta hori ez da nolanahiko kontua; zeren, batetik, emakumeen diru-sarrerak murriztu eta beren bikotekideen mendeko egoeran jartzen ditu, eta, bestetik, ongizate pertsonalarekin lotuta diren beste gai batzuetarako ekarpenak ere prekarizatu egiten ditu nabarmen –erretirorako ekarpenak, esate baterako–. Emakumeak pobretzea arrazoi batek baino gehiagok eragiten du; baina, azterlan guztien arabera, zaintza-arduretan zama handiagoa izatea oztopo

*(A las 10:30 h se reincorpora a la sesión el Sr. Orbegozo Uribe)*
*(A las 10:36 h se retira de la sesión la Sra. Oyarbide Ochoa)*

* * * *

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**2.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la ampliación de los servicios de colonias abiertas en verano para niños y niñas.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

“Sandra Barrenetxea Díez, concejala del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Delegada Ane Oyarbide para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre la ampliación de los servicios de colonias abiertas en verano para niños y niñas.

JUSTIFICACIÓN

Según Eustat, en 2023 se produjo un importante aumento del porcentaje de personas ocupadas residentes en la CAE que afirma tener grandes dificultades para conciliar la vida laboral con la familiar y la personal. El 29% de la población ocupada asegura tener muchas dificultades para conciliar el trabajo con el cuidado de sus hijos e hijas, afectando este hecho en mayor medida a las mujeres, que destinan de media 1,1 horas más al día a su cuidado de menores que los hombres.

El verano es la época del año que más dificultades genera a la hora de compaginar el cuidado de menores en edad escolar, que ya han terminado su periodo lectivo, con el calendario laboral. Es habitual que las mujeres reduzcan en estos meses su jornada laboral para hacer frente a este cuidado y decimos las mujeres, porque son ellas quienes realizan 5 de cada 6 solicitudes de reducción de la jornada y el 80% de las excedencias por cuidado. Esta no es una cuestión menor, tanto en cuanto supone una merma de los ingresos personales y sitúa a las mujeres en situación de dependencia respecto a sus parejas, además de precarizar de forma importante las cantidades que pueden aportar para otras cuestiones ligadas al bienestar personal, como es, por ejemplo, la futura

garrantzitsua da beregaintasunez bizitzeko izan behar diren baliabide ekonomikoak eta laboralak berdintasunez eskuratzeko.

jubilación. El empobrecimiento de las mujeres es multicausal, pero todos los estudios apuntan a que una mayor carga en las responsabilidades de cuidado supone un obstáculo importante en el acceso igualitario a los recursos económicos y laborales suficientes para llevar una vida autónoma.

Alde horretatik, erakundeek erantzukizun berriak hartu dituzte beren gain azken urteotan, eta, hala, mendeko pertsonak zaintzeko politika erantzukideak bultzatu dituzte. Kontziliazioaren kontzeptutik harago egin, ordea, eta, gizonek, enpresek eta erakundeek, zeregin horretan duten papera beren gain hartu eta erantzunkide izan behar dute. Hori dela eta, 1/2026 Legegintzako Dekretuaren 51. artikuluak adierazten du EAEko administrazio publikoek kontziliazio erantzukidea izateko modua jarri behar dutela, hainbat bitartekoren bidez: besteak beste –53.5 artikuluak adierazten duenez–, arreta osagarri bat izatea haur eta lehen hezkuntzako eskolaldian (hau da, 2 eta 12 urte bitartean), ezarritako eskola ordutegi eta egutegiaz gainerakoa. Azkenik, toki-administrazioak alde horretatik duen erantzukizunaz, 7 j) artikuluak argi eta garbi adierazten du udalen eginkizuna izango dela emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak jartzea, duten izaera dela-eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.

En este sentido, las instituciones han asumido en los últimos años nuevas responsabilidades en cuanto al impulso de políticas corresponsables para con el cuidado de las personas dependientes. Más allá del concepto de conciliación, es necesario que los hombres, las empresas y las instituciones asuman su papel en esta tarea y se hagan corresponsables en este sentido. Es por ello, que el DL 1/2026 señala en su artículo 51 que las administraciones públicas vascas han de facilitar la conciliación corresponsable por diferentes medios, entre ellos, según señala el artículo 53.5 aquellos que garanticen que a lo largo de la escolaridad infantil y primaria (esto es, entre los 2 y los 12 años) exista una atención complementaria, al horario y calendario escolar preestablecido. Por último y respecto a la responsabilidad de la administración local en este sentido, el artículo 7 j) señala claramente que las entidades locales deben establecer recursos y servicios para la conciliación corresponsable de la vida personal, laboral y familiar de mujeres y hombres, cuando por su naturaleza hayan de prestarse con carácter municipal.

Gure hirian badago udararako nolabaiteko eskaintza publiko eta pribatu bat, udaleku irekiena, eta zalantzarik ez dago oinarrizko eta beharrezko baliabidea dela hori eskolako egutegia eta lanekoa bateragarri egin ahal izateko. Hala, eskaintza publikoan, 5-12 urte bitarteko umeentzako "Oporretan euskaraz" programa dugu nabarmen. Zozketa egin eta 600 plaza inguru esleitzen dira urtero udaleku horietan, 8:30-13:30 ordu bitartean izaten da eta haurtzaindegi-zerbitzua ere eskaintzen da nahi izanez gero. Eskaintza pribatua dezente handiagoa da: 7:45etik 15:30era bitarteko ordutegia dago; jantoki-zerbitzua, haurtzaindegi-zerbitzua eta garraio-zerbitzua eskaintzen dira, eta plaza eskaintza eskarira egokitzen da.

De cara al verano, existe cierta oferta, tanto pública como privada, de colonias abiertas en la ciudad, que sin duda suponen un recurso básico y necesario para poder compaginar el calendario escolar con el laboral. Respecto a la oferta pública, destaca el programa “Oporretan euskaraz”, para menores de 5 a 12 años, adjudicándose por sorteo unas 600 plazas cada año, con un horario de 8.30-13.30 de la mañana, así como servicio de guardería opcional. Respecto a la oferta privada, es realmente más amplia, con horarios que abarcan desde las 7.45 hasta las 15.30, servicios de comedor, de guardería y de transporte opcionales, adecuándose la oferta de plazas a la demanda existente.

Azpimarratu behar da, gainera, baldintza teknikoen agirian programa honetarako definitutako xede-publikoa 3 eta 12 urte bitarteko haurrak izan arren, egiten den eskaintzak ez duela 3 eta 4 urte bitarteko haurrena hartzen, eta eskaintza pribatuak, berriz, bai. Donostian 5-12 urteko 11.637 haur bizi da; beraz, den programa publiko bakarrak ez du eskari potentzialaren %5etik ere hartzen. Baina, gainera, programa horrek ez ditu 3 eta 4 urteko umeak hartzen, eta adin horretako 2.419 haur dira Donostian. Alegia, oro har, eskaintza publiko txikia

Es necesario subrayar, además, que, aunque en el pliego de condiciones técnicas el público objetivo definido para este programa sean las criaturas de entre 3 y 12 años, la oferta que se realiza no abarca la edad de 3 y 4 años, mientras que la oferta privada sí lo hace. En Donostia residen 11.637 menores de entre 5 y 12 años, por lo que la cobertura del único programa público existente no llega al 5% de la demanda potencial. Pero, además, este programa no cubre a la población de 3 y 4 años,

dugula, eta, zehazki, 3 eta 4 urteko adinetarako eskaintza publikorik ez dagoela batere, nahiz eta programaren ezaugarri teknikoek aukera hori ematen duten.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatu duen zinegotziak aurkeztutako INTERPELAZIOA:

1.- Eskaintza pribatuak beharra badagoela erakusten badu eta publikoaren baldintza teknikoen orriek horretarako bidea ematen badute, zergatik ez da "Oporretan euskaraz" programa 3 urteko haurretatik hasita eskaintzen?

2.- Zergatik ez da programa –elkarguneak han izatea ez eze– hiriko barruti edo auzoen arabera antolatzen, haurrentzako ingurune hurbil eta fidagarria izatea bermatzeko eta, era berean, familien, komunitatearen eta profesionalen arteko artikulazioa errazteko?

3.- Zergatik ez dago familiei oporretan lana, bizitza pertsonala eta familiakoa uztartzen lagunduko dien beste programa publikorik?

4.- Zergatik ez da kontziliatzen laguntzeko moduko beste zerbitzu osagarri batzuk ere eskaintzen; ordutegi zabalagoak eta jantoki- eta garraio-zerbitzuak, adibidez?

Donostia, 2025eko maiatzaren 9a

Sandra Barrenetxea Díez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Jon Insausti eta Iñigo Garcia jaunek eta Sandra Barrenetxea andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(10:43ean Markel Ormazabal jauna bilkuratik atera da eta 10:45ean itzuli da)*

**4.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, auzoetan elkarbizitza lantzeko egitasmoei buruzkoa.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz,

que en Donostia suponen 2.419 criaturas. Es decir, tenemos, en general una oferta pública escasa y concretamente, una oferta pública nula para las edades de 3 y 4 años, a pesar de que las características técnicas del programa permiten esta posibilidad.

Por todo ello, la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

1.- ¿Por qué razones el programa "Oporretan euskaraz" no se oferta a las criaturas desde los 3 años, si la oferta privada evidencia la necesidad y las características técnicas del programa lo permiten?

2.- ¿Por qué razones el programa no se adecúa a la organización por distritos o barrios, más allá de los puntos de encuentro, para garantizar un entorno cercano y confiable para las criaturas, que facilite también, la articulación entre familias, comunidad y profesionales?

3.- ¿Por qué razones no existen otros programas de carácter público que ayuden a las familias a la conciliación laboral, personal y familiar durante la época de vacaciones?

4.- ¿Por qué razones no se ofertan, además, complementos que ayuden a la conciliación, como pueden ser horarios más amplios, servicios de comedores o servicios de transporte?

Donostia, 9 de mayo del 2025

Sandra Barrenetxea Díez
Concejala del Grupo Municipal EH BILDU".

Intervienen en este punto los Sres. Insausti Maisterrena y García Villanueva y la Sra. Barrenetxea Díez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 10:43 h se retira de la sesión el Sr. Ormazabal Gaztañaga y a las 10:45 h se reincorpora)*

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre los proyectos para trabajar la convivencia en los barrios.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del

interpelazioa egiten dio Maria Jesus Idoeta Partaidetzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hilabete eta urteetan elkarbizitzarekin lotutako arazoei soluziobidea emateko tresnak sortzeko helburuarekin, egitasmo desberdinak jarri izan ditu martxan Udaletxeak. Auzo-mahaien egitasmo iraunkorra batetik, elkarrizketarako eta erronka komunak identifikatzeko espazio gisa; bestetik, gatazkak sortu izan diren auzoetako eragileei diskurtso arrazistak saihesteko eta kudeaketa eraikitzailerako tresnak emateko helburuarekin saio desberdinak egin dira Egia, Herrera, Amara eta Martuteneko auzo elkarteekin, *Gizagune* fundazioaren eskutik. Aipatu prozesuko azken saioak irailean egin zirela, baina, bertan parte hartutako kideek eta eragileek oraindik ez dutela jaso saioetako deboluziorik ez eta ondoriorik. Zentzu horretan eta saio hauek emaitzak izan ditzaten, garrantzitsua da urrats bakoitza ondo ixtea eta ondorio partekatuak uztea; kontrara, jarraipenik gabeko saio isolatuetan besterik ez da geldituko prozesua.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

• Zer dela eta ez dute jaso Herrera, Egia, Amara eta Martuteneko auzo elkarteek egindako prozesuaren ondoriorik? Egingo al da saio gehiago? Zein itxiera emango zaio prozesuari? Jasoko al da gomendiorik *Gizagune* fundazioaren partetik?

• Auzo-mahai iraunkorren kasuan, zein dira egun martxan daudenak, eta zein dinamika dute? Zein balorazio egiten du udal gobernuak auzo-mahaiei dagokienean?

• Martuteneko Tratu On egitasmoak martxan jarraitzen al du?

Donostian, 2025eko maiatzaren 9an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Maria Jesus Idoeta andreak, Iñigo Garcia jaunak eta Izar Hernando andreak hitz egin dute puntu honetan.

Pleno, la siguiente interpelación a María Jesús Idoeta, concejala delegada de Participación Ciudadana, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Durante los últimos meses y años, el Ayuntamiento ha puesto en marcha diferentes proyectos con el objetivo de crear herramientas que den solución a los problemas de convivencia. Así, por ejemplo, por un lado, tenemos el proyecto permanente de mesas vecinales, como espacio de diálogo e identificación de retos comunes; y, por otro, con el objetivo de evitar discursos racistas y dotar de herramientas de gestión constructiva a los agentes de los barrios donde han surgido conflictos, se han realizado diferentes sesiones con las asociaciones vecinales de Egia, Herrera, Amara y Martutene, de la mano de la fundación *Gizagune*. Cabe señalar que, a pesar de que las sesiones finales del proceso se realizaron en septiembre, a los miembros y agentes participantes no les han remitido ni una devolución de dichas sesiones, ni las conclusiones resultantes. En este sentido, y para que estas sesiones tengan un resultado, es importante hacer un cierre de cada fase y extraer conclusiones compartidas; ya que, de otro modo, el proceso quedaría en unas meras sesiones aisladas sin continuidad alguna.

Es por ello que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo no han recibido las asociaciones vecinales de Herrera, Egia, Amara y Martutene las conclusiones del proceso llevado a cabo? ¿Se van a realizar más sesiones? ¿Qué cierre se va a dar al proceso? ¿Se van a recibir recomendaciones por parte de la fundación *Gizagune*?

- En el caso de las mesas vecinales permanentes, ¿cuáles son las que están actualmente en funcionamiento y qué dinámica tienen? ¿Qué valoración hace el gobierno municipal en torno a las mesas vecinales?

- ¿Sigue en marcha el proyecto 'Tratu On' de Martutene?

Donostia, a 9 de mayo de 2025

Izar Hernando Ibero
Concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto la Sra. Idoeta Madariaga, el Sr. García Villanueva y la Sra.

Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(10:53an Kerman Orbegozo jauna bilkuratik atera da)*

*(A las 10:53 h se retira de la sesión el Sr. Orbegozo Uribe)*

**5.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Gizarte Ekintzako "txoke planaren" gainean.**

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el "plan de choque" de Acción Social.**

Izar Hernando andreak interpelazio hau azaldu du:

La Sra. Hernando Ibero expone la siguiente interpelación:

“Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesus Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

“Izar Hernando Ibero, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente interpelación a Maria Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

Gizarte Ekintzako profesionalek hilabeteak daramatzate jada sailaren tentsionamendua dela eta mobilizatzen, baita eskari konkretuak egiten ere. Aldarrikapen horien oinarrian, finean, plantilla handitzea eta sakoneko azterketa bat egitea dago, Gizarte Ekintza eguneratua eta kalitatezko arreta emateko gai izan dadin, eta hori ez dadin izan profesionalen gainkargaren bizkar. Urgentziazko neurriak eta epe ertainera begirakoak konbinatzea eskatzen du horrek, hausnarketa sakona izan dadin eta urratsak era ordenatuan eman daitezen, baina era berean, egun dagoen presioa jasanezina delako.

JUSTIFICACIÓN

Las y los profesionales de Acción Social llevan ya meses llevando a cabo movilizaciones a causa del tensionamiento que sufre el Departamento y planteando también demandas concretas. Estas reivindicaciones son, entre otras, el incremento de plantilla y un análisis en profundidad que permita a Acción Social ser capaz de ofrecer una atención actualizada y de calidad, pero no a costa de la sobrecarga de las profesionales. Esto requiere una combinación de medidas urgentes y a medio plazo, para que la reflexión sea profunda y se den pasos de forma ordenada, pero también porque la presión existente en la actualidad resulta insostenible.

Zinegotzi delegatuak udalbatzan publiko egin zuen “txoke plana” aurkeztuko zuela egoera destentsionatze aldera. Langileek adierazi duten arren greba eta mobilizazio testuinguru honetan negoziaziorako markoa greba batzordea dela, proposamenaren berri jasotzen azkenak izango dira. Era berean, profesionalak beldur dira aurkezturiko plana ez ote den joango Gizarte Ekintzako Zuzendaritzaren arreta-ereduarekin kontraesanean.

La concejala delegada anunció en el Pleno que iba a presentar un "plan de choque" para destensionar la situación. Si bien las trabajadoras han manifestado que en este contexto de huelga y movilización, el marco de negociación es el comité, serán los últimos en conocer la propuesta. Asimismo, las profesionales temen que el plan presentado contradiga lo establecido en el modelo de atención de la Dirección de Acción Social.

Argi dagoena ondorengoa da: ematen diren urratsak profesionalen eskutik eman behar dira, haiek baitira egoera ezagutzen dutenak, beharrak eta hutsuneak pairatzen dituztenak, eta gaiarekiko ezagutza profesionala dutenak. Hori egin ezean, ziur, emaitza ez dela positiboa izango.

Lo que sí está claro es que los pasos que se vayan a dar deben ir de la mano con las profesionales, que son quienes conocen la situación, quienes sufren las necesidades y las carencias existentes y quienes tienen conocimientos profesionales sobre la materia. En caso contrario, seguro que el resultado no será positivo.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak

Por todo ello, la concejala firmante presenta la

honako INTERPELAZIO hau egiten du:

• Zer dela eta ez du Udal Gobernuak "txoke plana" greba batzordearekin adostu? Zein dira txoke plana diseinatzeko emandako urratsak? Zein aukera izan dituzte langileek eta haien ordezkariek txoke planean ekarpenak egin edo desadostasunak mahai-gaineratzeko?

• Zein dira txoke planean jasotzen diren esku-hartzeak?

• Udal Gobernuak uste du txoke planak betetzen dituela Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako arreta ereduak ezartzen dituen jarduteko printzipioak? Txoke plana bat al dator langileek hilabete hauetan mahai-gaineratutako eskariekin, edo horien norabidearekin?

Donostian, 2025eko maiatzaren 9an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Maria Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(10:58an Kerman Orbegozo jauna bilkurara sartu da berriro)*
*(11:08an Iñigo Garcia jauna bilkuratik erretiratu da)*

**6.- Interpelazioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Parte Zaharreko hainbat elkartek Guardetxea dela eta Udalari egindako bilera eskaerari erantzun ezari buruzkoa.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Donostiako alkate Eneko Goia Laso jaunari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den maiatzaren 2an, Parte Zaharreko hamabi elkarte, jai batzorde eta kultur eragilek bilera eskaera luzatu zioten Donostiako Udal Gobernuari, bai eta

siguiente INTERPELACIÓN:

• ¿Cuál es el motivo por la que el Gobierno Municipal no ha acordado el "plan de choque" con el comité? ¿Qué pasos se han dado para el diseño del plan de choque? ¿Qué oportunidades han tenido las personas trabajadoras y sus representantes para hacer aportaciones o plantear discrepancias ante el plan de choque?

• ¿Cuáles son las intervenciones recogidas en el plan de choque?

• ¿Considera el Gobierno Municipal que el plan de choque cumple con los principios de actuación que establece el modelo de atención de la Dirección de Servicios Sociales? ¿El plan de choque se ajusta a las demandas planteadas por las trabajadoras en estos meses o a la dirección que plantean estas?

San Sebastián, 9 de mayo de 2025

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 10:58 h se reincorpora a la sesión el Sr. Orbegozo Uribe)*
*(A las 11:08 h se retira de la sesión el Sr. García Villanueva)*

**6.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la falta de respuesta a la solicitud de reunión por parte de varias asociaciones de la Parte Vieja con motivo del Guardetxe.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 2 de mayo, 12 asociaciones, comisiones de fiestas y agentes culturales de la Parte Vieja solicitaron al Gobierno Municipal de

Gazteria eta Kultura Saileko zinegotziei, Urgulleko Guardetxea eraikinari buruz aritzeko. Eskaera erregistro bidez nahiz hedabideen aurrean egin zuten.

San Sebastián y a los concejales de Juventud y Cultura una reunión para hablar del Guardetxe de Urgull. La solicitud se realizó tanto a través del registro como ante medios de comunicación.

Eragile hauek izenpetu dute bilera eskaera: Alde Zaharreko Gazte Asanblada, Alde Zaharreko Kirol Elkartea, Alde Zaharreko Joaldunak, Alde Zaharreko Trikitixa Taldea, Bilintxi Balantxa Bertso Eskola, Donostiako Kaleren Lagunak Kirol Elkartea, Ernai Alde Zaharra, Euskal Jai Batzordea, Euskara Batzordea, Herria Kultur Elkartea, Karmengo Jai Batzordea eta Mugan Musika Kultur Taldea Elkartea.

La solicitud de reunión ha sido firmada por los siguientes agentes: Alde Zaharreko Gazte Asanblada, Alde Zaharreko Kirol Elkartea, Alde Zaharreko Joaldunak, Alde Zaharreko Trikitixa Taldea, Bilintxi Balantxa Bertso Eskola, Donostiako Kaleren Lagunak Kirol Elkartea, Ernai Alde Zaharra, Euskal Jai Batzordea, Euskara Batzordea, Herria Kultur Elkartea, Karmengo Jai Batzordea y Mugan Musika Kultur Taldea Elkartea.

Aurten sei urte beteko dira Guardetxea itxi eta erabilerarik gabe geratu zenetik, bertan egin behar diren hainbat lan direla eta. Sei urteren ondoren lanak hasi gabe daude, eta joan den Maiatzaren Lehenean dozenaka lagun eraikinean sartu ziren, espazioa garbitzen eta txukuntzen hasteko. Geroztik, egunero ari dira auzolanean. Aldi berean, adierazi dute prestutasun osoa dutela “Udal Gobernuarekin esleipen baldintzak adosteko” behin eraikinean egin beharreko lanak amaitu direla.

Este año se cumplen seis años desde que se procedió al cierre del Guardetxe y éste quedara en desuso, debido a diversas obras a realizar en dicho edificio. Tras seis años, aún no se han iniciado las obras, y el pasado 1 de mayo, decenas de personas entraron en el edificio para proceder a su limpieza y acondicionamiento. Desde entonces, están trabajando a diario, de forma comunal. Al mismo tiempo, manifiestan su total disposición a "acordar con el Gobierno Municipal las condiciones de adjudicación" una vez finalizadas las obras en el edificio.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

• Zer dela eta ez dio Udal Gobernuak Parte Zaharreko hainbat elkarte eta eragileek egindako bilera eskaerari erantzun? Asmorik ba al du horretarako?

• ¿Por qué no ha respondido el Gobierno Municipal a la solicitud de reunión realizada por diferentes asociaciones y agentes de la Parte Vieja? ¿Tiene intención de hacerlo?

Donostian, 2025eko maiatzaren 9an

San Sebastián, 9 de mayo de 2025

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Jon Insausti eta Markel Ormazabal jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto los Sres. Insausti Maisterrena y Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**7.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, 2025eko Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak ez ordaintzeari buruzkoa.**

**7.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la falta de abono de las Ayudas de Emergencia Social de 2025.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

Se da por leída la siguiente interpelación:

“Arantza González Garciak, Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) buruzko PREMIAZKO INTERPELAZIO hau aurkezten dio Gizarte Zerbitzuetako, Ekintza Komunitarioko eta Auzoetako zinegotzi ordezkari Idoeta andereari,

“Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN URGENTE a la concejala delegada de Servicios Sociales, Acción Comunitaria y Barrios, Sra. Idoeta, en la

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

PREMIAZKOTASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

2025eko hiru hilabete igaro dira jada, eta gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko eskubidea aitortuta duten pertsonek ez dituzte laguntza horiek jaso.

Gizarte-bazterkeriako egoerak saihesteko beharrezkoak diren gastu espezifikoei, arruntei edo apartekoei aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonei zuzendutako prestazio ekonomikoak dira laguntza horiek.

Beraz, dirulaguntza horiek atzeraeraginez ordaintzen diren arren, laguntza horiek behar dituztenek, eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren gastuak ordaintzeko beste modurik ez dutelako behar dituzte, eta laguntza horiek jasotzearen mende daude etxeko hornidura batzuk mantendu ahal izateko, besteak beste, argia edo gasa.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez dira ordaindu GLLak 2025eko urtarrilaz geroztik?

2. Noiz aktibatuko da GLLen ordainketa?

Donostia, 2025eko apirilaren 7a

Arantza Gonzalez Garcia,
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

Maria Jesus Idoeta eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**<u>8.- Galdera, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Villa Salian eman beharreko zerbitzuei buruzkoa.</u>**

Izar Hernando andreak galdera hau azaldu du:

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, galdera egiten dio Maria Jesus Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Pertsonen Batzordean.

Comisión de Servicios a las Personas en relación con las Ayudas de Emergencia Social (AES).

JUSTIFICACIÓN DE LA URGENCIA

Han transcurrido ya tres meses de 2025 y las personas que tienen reconocido el derecho a percibir las ayudas de emergencia social no las han recibido.

Estas ayudas son prestaciones económicas destinadas a aquellas personas cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, ordinarios o extraordinarios necesarios para evitar situaciones de marginación social.

Por lo tanto, y aunque el abono de las mismas se haga con carácter retroactivo, quienes necesitan las ayudas es porque no tienen otra forma de cubrir gastos imprescindibles para la vida cotidiana, y de cuyo pago depende que se mantengan entre otros suministros del hogar como luz o gas.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razón no se han abonado la AES desde enero de 2025?

2. ¿Cuándo va a activar el pago de la AES?

Donostia, a 7 de abril de 2025

Arantza González García
Concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia".

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>8.- Pregunta, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre los servicios a dar en Villa Salia.</u>**

La Sra. Hernando Ibero expone la siguiente pregunta:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, presenta, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente pregunta a María Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

Uztailean hastekoa da Hestia Villa Salia funtzionatzen. Egun/aste hauetan ebatzi da honen kudeaketaren lizitazioa. Hori horrela, uztailean Villa Salian emango diren zerbitzuen gaineko nondik norakoak jakin nahi genituzke.

Hori horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako GALDERA hauek egiten ditu:

– Zein zerbitzu emango dira Villa Salian? Izan al du moldaketarik hasierako diseinuak?

– Nola kudeatuko da kupoen funtzionamendua (turnoak, kanpoan gelditzen direnekin zer...)? Nola egingo da harrera? Otorduak nola banatuko dira?

– Zein enpresak kudeatuko du zerbitzua?

– Zein balorazio egiten du Udal Gobernuak enpresa handiak, eta Donostiatik urrunekoak, Gizarte zerbitzuetan hartzen ari diren presentziaz?

Donostian, 2025eko maiatzaren 9an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Maria Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(11:21ean Markel Ormazabal jauna bilkuratik atera da eta Itziar Iturri andrea sartu da)*

**9.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**9.1.- Interpelazioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, pilotalekuen erabilera anitzetarako baldintzei buruzkoa.**

Itziar Iturri andreak interpelazio hau azaldu du:

"Itziar Iturri Arrazolak, EH BILDU udal taldeko

JUSTIFICACIÓN

Según las previsiones, el próximo mes de julio entrará en funcionamiento el servicio Hestia en Villa Salia. Estas últimas semanas/días se ha adjudicado su gestión. En este contexto, nos gustaría conocer en qué van a consistir los servicios que se van a prestar en Villa Salia durante el mes de julio.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta las siguientes PREGUNTAS:

– ¿Qué servicios se van a prestar en Villa Salia? ¿Se ha realizado alguna adaptación en su diseño inicial?

– ¿Cómo se va a gestionar el funcionamiento de los cupos (turnos, qué hacer con las personas que queden fuera...)? ¿Cómo se va a realizar la recepción de las personas usuarias? ¿Cómo se repartirán las comidas?

– ¿Qué empresa se encargará de la gestión del servicio?

– ¿Qué valoración hace el Gobierno Municipal de la presencia que grandes empresas, radicadas lejos de Donostia, están adquiriendo en los servicios sociales?

San Sebastián, a 2 de abril de 2025

Izar Hernando Ibero
Concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 11:21 h se retira de la sesión el Sr. Ormazabal Gaztañaga y se incorpora la Sra. Iturri Arrazola)*

**9.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**9.1.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las condiciones para usos diversos de los frontones.**

La Sra. Iturri Arrazola expone la siguiente interpelación:

"Itziar Iturri Arrazola, concejala del Grupo

zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Udal Pilotalekuen erabilerarako baldintzei buruzko interpelazioa egiten dio Iñaki Gabarain Gaztelumendi jaunari, hari buruzko azalpenak Gune Publikoen Batzordean eman ditzan.

Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación, relativa a las condiciones para usos diversos de frontones, a Iñaki Gabarain Gaztelumendi, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFIKAZIOA

Hirian hainbat udal pilotaleku daude eta puntualki erabilera ezberdinak izaten dituzte, hala nola eskoletako jaialdiak, kontzertuak, auzoetako jaietako egitarauak, e.a.

Azken asteetan zehar eragile ezberdinek jakinarazi digutenez baldintza oso ezberdinak ezartzen dira halako kasuetan. Adibidez eskola publiko baten ikasturte amaierako jaialdirako erabiltzeko 600€ eskatu dizkie Kirol Patronatuak; beste eskola publiko bati ordea doan uzten zaio. Auzo bateko jaiak antolatzeko 500€ko fidantza eskatu die Kirol Patronatuak, baina doan lagatzen zaie...

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

– Zer dela eta ez da irizpide berdina aplikatzen kasu guztietan?

– Zein irizpideren arabera kobratzen da pilotalekuen erabilera kiroletakoa ez den kasuetan?

– Zer dela eta kobratzen da kasu batzuetan eta besteetan ez? Noiz eskatzen da fidantza eta noiz ez? Bestelako baldintzarik jartzen al da pilotalekuen erabileretarako?

– Aztertu al du Udal Gobernuak urtero errepikatzen diren ekintzetarako hitzarmenak sinatzea eragile ezberdinekin?

Donostian, 2025eko maiatzaren 9an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

JUSTIFICACIÓN

En la ciudad existen varios frontones municipales que puntualmente se destinan a otros usos, como festivales escolares, conciertos, programas de fiestas de barrio, etc.

A lo largo de las últimas semanas, diferentes agentes nos han informado de que, en estos casos, se establecen condiciones muy diferentes. Por ejemplo, para el festival de fin de curso de un centro educativo público, el Patronato Municipal de Deportes les ha solicitado 600 €, mientras que a otro centro público la cesión del uso del frontón se le hace de forma gratuita. El Patronato Municipal de Deportes solicita una fianza de 500 € para organizar las fiestas de un barrio, pero la cesión de uso se hace de forma gratuita…

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

– ¿Por qué no se aplica el mismo criterio en todos los casos?

– ¿Bajo qué criterios se cobra el uso de frontones para usos no deportivos?

– ¿Por qué se cobra en unos casos y en otros no? ¿Cuándo se exige fianza y cuándo no? ¿Se establece alguna otra condición para el uso de frontones?

– ¿Ha analizado el Gobierno Municipal la opción de firmar convenios con diferentes agentes que lleven a cabo actividades que se repiten año tras año?

San Sebastián, 9 de mayo de 2025

Itziar Iturri Arrazola
Concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Iñaki Gabarain jaunak eta Itziar Iturri andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. Gabarain Gaztelumendi y la Sra. Iturri Arrazola, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(11:36an Markel Ormazabal jauna bilkurara itzuli da)*

*(A las 11:36 h se reincorpora a la sesión el Sr. Ormazabal Gaztañaga)*

---------------

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, Batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko hamaikak eta hogeita hemeretzi minutuan bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMAN DUT.

Y, no habiendo más asuntos que tratar, el Presidente declara terminada la sesión a las once horas y treinta y nueve minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, LA SECRETARIA, DOY FE.

**BATZORDEBURUAK O. E. /**
**V.º B.º DEL PRESIDENTE:**

**Iñaki Gabarain Gaztelumendi**